

II - ARABAKO LURRALDE  
HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

## ERRIBERABEITIKO UDALA

## Praktiketako funtzionarioen izendapenak

2024ko azaroaren 20an onetsi eta Erriberabeitiko Udalaren ediktu taulan argitaratu dira egiturazko lanpostu hutsak merezimendu lehiaketaren sistemaren bidez betetzeko prozesuan praktiketako funtzionario izateko izendapenak, 20/2021 Legearen 6. eta 8. xedapen gehigarrietatik eratorritako iraupen luzeko aldi baterako enplegua egonkortzeko deialdiaren esparruan. Hori guztia, jarraian zerrendatzen diren plazak betetzeko hautaketa prozesuak amaitu ondoren.

Hori guztia bat etorri 2022ko abenduaren 22ko 142. zenbakiko ALHAOn argitaratu ziren aldi baterako enplegua egonkortzeko hautaketa prozesuak arautzen dituzten oinarri orokorrekin eta 2023ko apirilaren 19ko BOEn, 93. zenbakia, argitaratu zen deialdiaren laburpen batekin.

Ikusi dira lanpostuak betetzeko deialdiko lehiaketa epaitu duen epaimahai kalifikatzaileak proposatutako behin betiko sailkapenak eta izangaiek aurkeztutako dokumentazioa.

Alkatearen hurrengo dekretuen arabera, praktiketako funtzionario hauek izendatu dira, eta udal honen lanpostu hauetara atxiki dira:

PLAZA	TALDEA ETA AZPITALDEA	IZENDATUTAKO PERTSONA	NANA	IZENDAPEN DEKRETUA	PRAKTIKALDIA
Gizarte langilea	A2	María Montserrat Goicoechea Salinas	18197****	493/2024	6 hilabete
Arkitekto teknikoa	A2	María Teresa Ruiz de Angulo de la Hera	13**** 93V	492/2024	6 hilabete

Lanpostuen atxikipena behin-behinekoa izango da praktikaldia amaitu arte. Taldeari dagozkion soldataren eta aparteko pagen baliokideak diren ordainsariak jasotzea dagokio, Praktiketako Funtzionarioen Ordainsariak ezartzen dituen otsailaren 10eko 456/1986 Errege Dekretuan aurreikusitako egoeretako bat gertatzen denean izan ezik. 16. oinarrian ezarritakoaren arabera, praktikaldia 3 hilabetekoa izango da C taldean, eta sei hilabetekoa A taldean.

Izendapen horiek dekretuan adierazitako egunetik aurrera izango dituzte administrazio ondorioak.

Praktikaldia amaitu eta, hala badagokio, gaudituz ondoren, karrerako funtzionario izendatuko dira, eta izendapena ALHAOn eta lege ezarritako beste edozeinetan argitaratuko da.

Funtzionario izendatutako izangaiek hilabeteko epea izango dute, izendapena ALHAOn argitaratu ondorengo egunetik hasita lege ezarritako zin egitea edo hitzmatea egiteko eta lanpostuaz jabetzeko.

Publizitate ondorioetarako, dekretuak osorik argitaratu dira Erriberabeitiko ediktu taulan eta [www.riberabaja.eus](http://www.riberabaja.eus) webgunean, eta interesdunei jakinarazi zaizkie.

Dekretu horien aurka berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahalko da hilabeteko epean. Epe hori amaitu ondoren, administrazioarekiko auzi errekurtsoa baino ezingo da jarri, edota, hala badagokio, berrikusteko errekurtso berezia (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123., 124., 125. eta 126. artikulua).

Ribabellosa, 2024ko azaroaren 21a

Alkatea

AMADO MARTÍNEZ DE ITURRATE CUARTANGO